



**Musikak eman zien hasiera Inauteriei.**- Urtero legez, Udal Musika eskolako kideek eman zioten hasiera Inauteriei. Asteburuko gaiari aurre hartuaz, musika izan zen nagusi asteazken arratsaldean Manuel Lekuona kultur-etxeko areto nagusian. Adin guztietako ikasleek haien trebetasuna erakutsi zuten. Oiloak, piratak, printzesak, gangsterrak eta beste hamaika pertsonaia ere izan ziren taula gainean. Irakasleak ere mozorrotu ziren egun berezi honetan. Eskolako txikiek eman zioten hasiera emanaldiari. Gurasoen begiradapean bi doinu antzestu eta dantzatu zituzten txikiek otso beldurgarriaren esanei jarraikiz. Ostean, bakarka, binaka edo taldean instrumentu desberdinen ahotsek bete zuten areto nagusia, hala nola, pianoa, bibolina, flauta, trikitixa edo gitarra. Doinu klasikoak, euskal abestiak, musikale-tako kanta ezagunak edo gaur egungo musika entzuteko aukera izan zen. Dantzarako eta kanturako tartea ere egon zen emanaldian, esate baterako, txalopeloz dantzatu zuten eta Oasis-en Wonderwall edo Sonrisas y lagrimas musikaleko Do, re, mi abestiak kantatu zituzten. Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Inauterietako giroan murgildu zituzten Manuel Lekuonara hurbildu diren senide eta lagunak eta hauek ederki gozatu zuten emanaldiaz.

### 3 MERKATARITZA Autobusetan "Tratu on bat" marka zabaltzen

TSST ko autobusek "Tratu on bat" kanpainarekin bat egingo dute. Lasarte-Oriako udalarekin akordioa sinatu da eta honen bitartez, autobusetan kanpainaren irudia jartzeaz gain, herriko ekintzen berri emango duten kartelak jartze-ko konpromisoa hartu du autobus enpresak.

### 4 JAIK Udala San Pedro Jaiak osatzeko lan eta lan

Lasarte-Oriako Gazteria eta Festak atala San Pedro jaiak prestatzen ari da. Aste honetan San Pedro Jaietako kartel lehiaketa aurkeztu dute eta jaietako egitaraua osatzeko, Jaietan Blai! prozesuko bigarren topaketa ere burutu dute. Kartelak aurkezteko epea astelehenean irekiko da.



### 5 HEZKUNTZA Martxoaren 27an, Ikasle greba egiteko deialdia

Lasarte-Ururbil Institutuko Ikasle Abertzaleek LOMCE eta hezkuntza arloko legeen erreforma, zein murrizketen aurkako hainbat ekintza antolatuko dituzte martxoan zehar. Hilabeteari amaiera emateko, martxoaren 27an ikasle greba deialdia egin dute.

**ELECTRICIDAD ARREGUI**  
www.electricidadarregui.com

**ETORRI GURE  
ESKAITZA BEREZIAK  
IKUSTERA!**

12 hilabete interesik gabe  
**TAE 0%**

**299€**

**479€**

**399€**

**469€**

**349€**

**479€**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./ Faxe: 943 372521

Neure kabuz



Ane Labaka

Mozorrotuta

Iritsi dira inauteriak. Margotu ezpainak, harrotu ilea, tindatu, atera ganbaratik gurasoen erropa zaharrak, brillantinak, amonaren zapatak, moztu oihalak, makillatu azala, koloreztatu, aldatu orrazkera, jantzi pelukak, antenak, belarriak, marradun galtzerdi luzeak, korbatak, gonak, alkandorak, zapiak, lastozko kapelak, biboteak, uretako betaurrekoak, soinekoak, bizarrak... jantzi inoiz jantziko ez zenituzkeenak, edo jantzi nahi baina janztera ausartzen ez zarenak (zer pentsatuko dute zutaz?). Eta, batez ere, erantzi konplexuak, beldurrak, lotsak.

Zergatik gustatzen ote zaigu horrenbeste mozorrotzea? Galdera hori ibili dut buruan bueltaka aste honetan.

Astelehenean Tolosara joateko ohitura dugunontzat astear-tean amaitu ohi dira inauteriak, goizaldean etxera iritsi eta mozorroa erantzten. Ez da hori, ordea, buruan dabilkidana. Azkenaldian nire inguruak behatzeko tartea hartu eta ingurukoen nahiz nire buruaren jokabideak aztertu ditut. Behatu eta behatu, ondorio argi bat atera dut. Nago, inauteriez gain egunerokotasunean gehiegitan jantzen ditugula mozorroak, gehiegitan izaten dugula hauen beharra. Harrigarria da nola garen gai barritik hautsita egonda ere ondo gaudela antzetzuta eta irriparre faltsu bat jantzeko eta zenbat kostatzen zaigun maskarak erantzeta. Zenbat beldur diogun garenari, negar egiteari, sentitzeari, txikitzeari, aitortzeari, barruan duguna erakusteari, hunkitzeari... eta, batez ere, biluzteari.

Zorion agurrak



Uxue

Zorionak zure 16. urtebetetzean preziosa. Eta gogoratu... gaurko afaria zure kontura!! Muxu asko familiaren partetik.



Sara eta Lorena

ZORIONAK PRINTZESAK! SEI MUXU HANDI AITA ETA AMATXOREN PARTETIK!!



Maider

Zorionak! 19 inauteri! Muxu eta besarkada asko etxekoan partetik. Maite zaitugu "ILARGIRAINO" eta buelta, marimatrak!



Naroa

Zorionak pittu! 11 muxu potolo gure printzesari. Oso ondo pasa zure egunean. Segi horrela txapelduna!



Ane

Aupa gaztea! Jo ezazu eman ahal nekatuare! ZORIONAK wapa! Gozatu eta egun ona izan.



Jone eta Juan Luis

Zorionak bikote, etxekoan partetik 10000 muxu, oso ondo pasa!!



Asier

Zorionak! Oso ondo pasa zure 22. urtebetetzean! Aita, ama eta Maiderren partetik 22 muxu handi guapo.



Iune

Zorionak gure etxeko sorgintxoari!! Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Motor batentzako apartakalea alokatzen da erdigunean, elizaren ondoan. Telefonoa: 649526766.
- Lasarte-Orian pisu konpartitu batean gela alokatzen da. 250 euro hilabetean. Erdigunean. Harremanetarako, 600 612 085.

Salerosketak

- Izozkailu bertikala saltzen da 200 eurotan. 6 konpartimetu ditu eta Ecron markakoa da. 2011ean erositakoa da eta oso egoera onean dago. Rafa 637234705.

Lan-eskaria

- Emakumea eskaintzen da garbiketa edota zaintza lanak egiteko interna edo externa modura. Erreferentzia eta esperientziarekin. 680 767 241.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona adinduek zaintzeko. Interna,

externa edo ordula. Esperientzia du. Harremanetarako, 610 147 291.

- Emakumea eskaintzen da astelehenean ostiralera gauetz pertsona adinduek zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziarekin. Gladis 699 820 299
- Mutil arduratsua esperientzia eta gidabaimenarekin lana bilatzen du ordula, interno edo externo. 688302653
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta zaintza lanetarako interna edo externa moduan. Harremanetarako, 685 520 590
- Nikaraguako mutila lanerako prest helduen zaintzan interno edo externo moduan. Titulazioa eta esperientziaduna. 633288124
- Emakumea eskaintzen da arratsalde garbiketa lanetan edo zaintzan lan egiteko. Paperak eta esperientziarekin. 666708963
- Emakume arduratsua lana bilatzen du, externa edo interna, pertsona adinduek, umeak edo gar-

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Aimar Olaiz Vicente, otsailaren 25ean.
- Alain Garcia Gago, otsailaren 20an.

Heriotzak

- Rufina Irazu Amundarain, otsailaren 24an, 91 urte zituela.
- M<sup>o</sup> Luisa Goitia Urcelay, otsailaren 23an, 90 urte zituela.
- Sara Gomez Garcia, otsailaren 22an, 87 urte zituela.
- Jose Manuel Altuna Arregui, otsailaren 22an, 83 urte zituela.
- Mercedes Baz Vallejo, otsailaren 21an, 65 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 28	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 01	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 02	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 03	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteartea, 04	Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 05	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 06	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Aldabe, Perkaiztegi 8,  
Hernani, Tel.: 943 336 022

biketa, lanetan. Esperientziaduna eta erreferentziarekin. 633292912

- Lan bila nabil, interna , gauetz, ordula lan egingo nuke. Harremanetarako, 649 907 548.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak edo haurrek, zein pertsona adinduek zaintzeko. Ordula edo egun osoa. Erreferentziak ditu. Harremanetarako, 681 042 214.
- Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaindako nituzke interna moduan. Harremanetarako, 634278198.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar; jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Ordula lan egiteko prest ere. 943404015/606661048

Bestelakoak

- Ingelesa ikasteko klase partikularrik ematen ditut bakarka, zein taldeka. 693 601 222.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttikon Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 366 858/943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azumendi, Nerea Ezzagire, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:  
Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com  
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Amutu, Asier Odiozola, Jone M., Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## MEREKATARITZA

# "Tratu on bat" autobusetan

## TSST -ko autobusek markaren irudia eramango dute



Santi Sarasolak eta Pablo Barriok akordioa sinatu zuten autobusetan.

TSST ko autobusek "Tratu on bat" kanpainarekin bat egingo dute. Lasarte-Oriako udalarekin akordioa sinatu da eta honen bitartez, herritik pasatzen diren autobusetan kanpainaren irudia eramateaz gain, herriko ekintzen berri emango duten kartelak jartzeko konpromisoa hartu du autobus enpresak.

## TXINTXARRI

TSSTko egoitzan asteazkenean egindako agerrian Pablo Barrio alkateak eta Santi Sarasola autobus enpresako ordezkariak irudikatu zuten akordioa. Udalarekin hartutako konpromisoa da herritik pasatzen diren autobus guztietan "Tratu on bat" markaren irudia eramatea. Horretaz gain, herrian antolatzen diren ekintzen berri

emango dituzten kartelak jarriko direla azaldu zuen Dioni Avila udal teknikariak.

Honek azpimarratu nahi izan zuen enpresak azalduko konpromisoa izan ere, "ez dago tarrean diru trakerik, TSST herriko enpresa handia den neurrian, bat egin nahi izan du "Tratu on bat" markarekin eta jarrera txalotzekoa da. Gainera kontutan izanda autobusetan ibiltzen den jende kopuru handia, oso garrantzi-

tsua izango da hauen barruan ekintza berezien berri ematea herrira ere inguruko herrietako jendea erakartzeko".

Egun 500 enpresa inguru dira Lasarte-Oriako martxan daudenak eta "gora behera asko" izan diren arren, azken urte hauetan kopurua mantentzen doa. Udalak bere aldetik azaldu zuen ahalgintza egiten jarraituko duela esparru hau zaintzeko.


Merkataritza planean adostutako hainbat neurri ari da udala aurrera eramaten eta "Tratu on bat" marka horietako bat da. Honekin islatu nahi da batetik Lasarte-Oriako merkatarien harrera ona eta zuzena dela eta bestetik, zerbitzua ona eta kalitatekoa eskaintzen dutela.

## Urpeko zinema saioekin pozik

Manuel Lekuonak otsailaren 3, 10 eta 17an, Urpeko nazioarteko zinema zikloa izan da. Danok Kide Elkarteak Real Sociedad taldeko urpekari taldearen laguntzarekin film laburren emanaldi sorta antolatu du eta aurten arrakasta handia izan duela aitatu dute.

"la ehun herritar bildu ziren saio bakoitzean eta gerturatu den jendea harriztatuta geratu da aurkezutako film motekin. Izan ere, aurten diaporama musikatuak edo poesiarekin lotuak ikusteko aukera izan da".

Honetaz gain, haurrekin otsailaren 10ean egindako saioa ere oso positiboki baloratu dute, "200 bat haur bildu



Zinema saioaren Real Sociedad taldeko urpeko hainbat kide izan ziren, irudian Nano Cordovilla.

ziren eta asko gozatu zuten. Pena izan zen, ikastetxeetako batek presa zuela eta ezin izan zela solasaldira gelditu. Baina haurren galderak oso interesgarriak izan ziren".

Hau guztiagatik, Danok Kide elkarteak hurrengo urtean ere ekimenarekin jarraitzeko asmoa agertu dute.

Bestalde, Biyak Batekoek Musika Topaketen saio berria prestatu dute martxoaren 21ean. Oraingoan, Ama Brigitarren komentuko kaperara hurbiltzen diren herritarrek ahotz gazteez gozatu dute, Andra Mari abesbatzaren harrobia den Orereta abesbatzako gazte-oxoak etorriko baitira.

## BIYAK-BAT

### Tuterara irteera

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak Tuterara txangoa antolatu du. Irteera martxoaren 15ean izango da.

Goizeko 8:00etan egoitza aurretik aterako da autobusa eta goizean zehar Tuterara ikusteko aukera izango dute bidaian izena ematen duten pertsonak. Bazkaria "Finca el Montecillo" jatetxean izango da. Ostean, bingoa, opariak, dantzaldia eta jaialdi "kanperoa" izango da.

Izena emate epea astelehenean, martxoaren 3an irekiko da. Elkarteak kideek 37 euro ordaindu beharko dituzte, kide ez direnek berriz, 45 euro.

## IKASTAROA

### Makrobiotika, apuntatzeko azken eguna

Martxoaren makrobiotika ikastaroa antolatu du Ttakunek. Iaz izandako arrakasta ikusita, aurtengoan ere honetan trebatzeko aukera izango da Nerea Gereñok gidatuta.

Bi talde egingo dira eta horrela astelehenean 18:00etatik 20:00etara edo ostiralean 18:00etatik 20:00etara egin ahal izango da ikastaroa. HHI-EPA-ko sukaldetan izango da eta honetan barazkien sukaldatzea, algen prestaketa eta sobratutako jakiak berreraabiltzen ikasiko dute parte hartzaileek besteak beste.

Ikastaroan izena emateko Ttakuneko bulegora hurbildu behar dira herritarrek. Ikastaroarengatik 22 euro ordainduko dituzte Ttakuneko bazkideek eta 25 euro bazkide ez direnek. Gaur da izena emateko azken eguna.

## IKASTAROA

### Janari Manipulatuzaile ikastaro berria

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun sailarekin elkarlanean, janari-manipulatuzaile ikastaro berri bat emango du. Arrisku handiko elikagaiak erabiltzeko balioko du eta ostalaritzako sektoreari zuzendua da, Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukia baita.

Ikastaroa martxoaren 6an, ostegunean izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan. Orduetgia 09:30etik 13:30era bitartekoa izango da.

Prezioa pertsonako 45 eurokoa da; langabetuentzat berriz, 35 euro (erregimen orokorrean dauden pertsonak hobariak izan ditzakete). Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu OMIC 943 361 605 edo Elkolab, S.COOP. 943 533 303 telefonoetara.

## ELKARRETARATZEA

### EHBildu sakabanaketaren kontra

Hamaika urte dira, Argi eta Iñaki, ama-emeak Juankar anaia bisitatzera zihoazela auto istripu batean zendu zirela. Horregatik, EHBilduk gaur, otsailak 28, 13:00etan, Argi eta Iñaki zendu zireneko urteurrenean, beste behin ere euskal preso politikoen eskubideak errespetatzeko aldarrikatzeko "Giza Eskubideak. Irribidea. Bakea. Sakabanaketaren politikarekin amaitu" lelopean elkarretaratzea deitu du Udaletxe zaharreko arkupetan. Arratsaldean ere izango da manifestazio ixila herriko kaleetan barrena 20:00etan Okendo plazatik abiatuta.

EHBilduk ohar baten bidez gogorarazten duenez, egun dispertsioren eraginez euskal preso politikoen senide eta lagunek milaka kilometro egiten dituzte eta "egin beharreko bidaia luze eta arriskutsuak" dira. Era berean, Euskal preso politikoen kolektiboari aplikatzen zaion kartzela politika, kru-delkeriaren sinbologia dela adierazten du EHBilduk. Hau "mendekua, xantaia eta errepresioan" oinarritzen dela eta "erabat salbuespenekoa den legerian sostengatzen" dela ere azpimarratzen da. Hau guztiaz gain, gainontzeko alderdi politikoei egungo egoerak eskatzen duen ardurarekin joka dezatela eskatzen du.

## DANBORRADA

### Web berria

Duela egun batzuetatik hona, Lasarte-Oriako Danborradaren web berria erabilgarri dago. Bertan, Lasarte-Oriako danborradaren historia, irudi, argazki... jaso dituzte.

Aurrerantzean herriko danborradak adierazi beharreko ohar edo abisu guztiak bertan jarriko direla ere aurreratu dute, helbidea: [www.tamborradalasarteoria.org](http://www.tamborradalasarteoria.org).

# San Pedro jaiak prestatzen

*Aurtengo San Pedro Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko epea martxoaren 3an irekiko da*

*Lasarte-Oriako Udala lan eta lan dabil aurtengo guztiok San Pedro jaietaz gozatzeko. Asteartean, Jaietan Blai! prozesuko bigarren bilera egin zen eta ekintza zehatzak eskatu ahal izan zituzten bertan izan ziren herritar eta elkarteek. Asteazkenean, berriz, Gazteria eta Festak arloak jaietako kartel lehiaketa aurkeztu zuen. Maiatzaren 5era arte bidali daitezke lanak.*

**S**an Pedro Jaiak gero eta gertuago ditugu eta Udalak guztia prest izan nahi du gure herrian hain garrantzitsuak diren egunak ospatzeko. Horregatik, ekintza desberdinak aurrera darabiz Udalak.

Gazteria eta Festak sailak beste urte batez San Pedro jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa martxan jarriko du astelehenetik aurrera.

Manuel Lekuonan asteazkenean egindako prentsaurrekoan Taxio Arrizabalaga Gazteria eta Festak saileko arduradunak teknikariek batera 2014. urteko lehiaketako nondik norakoak azaldu zituen. Honak bi berrikuntza nagusi izango ditu.

## Baldintzak

Nahi duen edonork parte hartu ahal du lehiaketan eta pertsona bakoitzak egoki deritzon adina proposamen aurkeztu ahal izango ditu.

Aurkezpenen aipatuzenez, lan guztiak goiburuz gisara "San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2014" eraman beharko dute.

Teknika guztiz librea da eta proposamenak jatorrizkoak izan beharko dutela, hau da, lehiaketarako espreski eginak eta beste lehiaketatan saritu gabeak izan behar dutela azpimarratu zen.

Era berean, baldin eta kartel guztia edo haren zati bat osatzen duten irudien jabetza

intelektuala egilearen esku ez badago, kartela ezingo da aurkeztu.

## Saria

Aurtengo berrikuntza nagusi izango dira lehiaketan, sariaren zenbatekoa eta kartelen neurri aldaketa.

Sariaren zenbatekoa handitu dela adierazi zuten, "aurreko urteetan 300 eurotako saria zen, aurtengoan, 600 eurotako izango da".

Gazteria eta Festak saileko buruak jakitera eman zenez, aurtengoan, irabazleentzat saria 600 eurotako izango da.

## Lanen aurkezpena

Kartelen neurriari dagokionez "Kartelak Inauterietakoekin tamaina izango du, aurreko urteetan baino handiagoa", aipatu zuten aurkezpenen.

Horregatik, 50x70 cm-ko tamainako lanak aurkeztu beharko dituzte herritarrek.

Kartelak formatu digitalean nahiz formatu fisikoan aurkeztu ahal dira, eta izenburu batekin identifikatu beharko dira. Oinarrietan azpimarratzen den moduan, ezin dira egilearen izenarekin identifikatuak egon.

Kartela formatu digitalean aurkezten bada, ezaugarri hauek bete behar ditu: JPG formatua, 50x70 cm-ko tamaina eta 300 pixel hazbeteko. Kasu honetan, artxi-boaren izena obraren



Taxio Arrizabalaga eta Rosa Illarramendi Gazteria eta Festak saileko kideak izako kartel irabazleekin.

izenburuzat joko dela jakitera ematen da oinarrietan.

Formatu honetako lanak posta elektronikoz bidaliko dira, [sanpedrojaiak@lasarte-oriaren.eu](mailto:sanpedrojaiak@lasarte-oriaren.eu) helbidera.

Mezuaren kartelarikin batera testuzko dokumentu bat atxiki beharko da. Honetan egilearen datu pertsonalak eta harremanetarako datuak idatzi beharko dira.

Kartela formatu fisikoan aurkezten bada, aldiz, 50x70 cm-ko tamaina izan beharko du.

Gaztelekuan dagoen Gazteen Informaziorako Bulegoan aurkeztu ahal dira kartelak, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 21:30era eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00era eta 16:30etik 20:00etara.

Kartelaren izenburuak atzealdean egon beharko du idatzia eta gutun-azal itxi bat atxikiko zaio, egilearen datu pertsonalak eta kontaktukoak dauzkana.

Lehiaketako oinarri guztiak Lasarte-Oriako udaleko web orrian aurki daitezkeela azpimarratu zuten prentsaurrekoan.

Lanak aurkezteko epea, berriz, astelehenean irekiko da eta azken eguna maiatzaren 5a izango da.

## Aukeraketa

Kartel irabazlearen aukeraketa aurtengo herritarrek zer esana izango dute.

Lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak [www.lasarte-oriaren.eu](http://www.lasarte-oriaren.eu) webgunean ikusgai jarriko dira, sinadurarik gabe eta izenburuaren bidez identifikatuak.

Herritarrek ikusgai jarriko diren kartelei buruz duten iritzia adierazi ahal du, eta iritzi hori aintzat hartuko da kartel irabazlea hautatzeko.

Lehiaketako azken erabakia, aldiz, Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirolak Batzordeak izango du eta hau apela ezina izango da.

## Jaietan Blai! bigarren saioa

Bestalde, San Pedro jaiak antolatzekeo bigarren topaketa burutu zen astearte arratsaldean Udaletxe berriko harreman.

Gazteria eta Festak arloak herritarren eta elkarten parte hartzea sustatu nahi izan du berriro ere San Pedro jaietako egitaraua osatzeko. Horregatik, Jaietan Blai! prozesua jarri zuten martxan.

Urtarrilaren 28an, lehengo bilera egin zen eta San Pedro jaien egun bakoitzeko ezaugarri nagusiak finkatu zituzten.

Asteartean, berriz, elkarte herritarrek proposamen zehatzak egin ahal izan zituzten.

Lehengo bileran zehaztutako ezaugarrien arabera, elkarte zein herritarrek egun bakoitzerako proposatzen zituzten ekintzak aipatu zituzten. Hala nola, sokamuturra, mele erraldoia, kaleko ikuskizunak, batukada edo Vendetta, SA edo Doctor Deseoren kontzertuak.

## Irudokizunak egin

Hala ere, hauek ez dira egitaraua osatuko duten ekintza bakarrak izango.

Egitaraua ez dago itxia eta topaketara hurbildu ezin izan zuten herritarrek ere haien proposamenak egiteko aukera dute.

Honetarako, Gazteria eta Festak departamentuak beste modu batzuk daudela jakitera eman du.

Irudokizunak Lasarte-Oriako Udalaren sare sozialen bidez edo herriko etxe guztietara banatu den esku-orriaren bidez helarazi daitezke. Esku-orri hau eraikin publikoetan dauden postontzietan beteta utzi behar da.

Bileretan eta postontzi, zein sare sozialen bidez jasotzen diren irudokizunak aztertuko dira, haien bideragarritasuna ikusi eta aurrekontura egokitu ostean, Udalak 2014 urteko San Pedro jaien egitaraua osatuko du.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak herritarrek animatu nahi ditu haien iritzia plazaratu eta ekintza zehatzak proposatzera. Izan ere, herritarrek egindako San Pedro jai parte hartzaileak antolatzea du helburu Udalak.

Era honetara, proposamenak jasotzeko epea martxoaren 16ra bitartekoa izango dela gogorarazi du Gazteria eta Festak sailak.



Jaietan Blai! prozesuko bigarren bilera egin zen asteartean. Bertan ekintza zehatzak proposatu zituzten herritar eta elkarteek.

# Martxoaren 27an ikasle greba

## Ikasle Abertzaleek LOMCE-ren aurkako ekintzak iragarri dituzte hurrengo hilabeterako

Lasarte-Usurbil Institutuko Ikasle Abertzaleak Estatuko hezkuntza erreformaren aurka agertu ziren. Astearte eguerdian eskaintako prentsaurrekoan martxoaren 27an ikasle greba egitera deitu zuten. Era berean, martxoan zehar hainbat ekintza antolatuko dituztela aurreratu zuten.

### TXINTXARRI

Lasarte-Usurbil Institutuko Ikasle Abertzaleek LOMCE-ren aurka dituzten argudioak eskaini eta honi aurre egiteko antolatu dituzten ekintzen berri eman zuten astearteko egindako agerraldian.

Taldearen izenean, Amane Otaegi eta Uxue Otxandorenak LOMCE legearen bitartez euskal ikasleek jasango dituzten "klase, sexu, hizkuntza eta beste hainbat zapalkuntza" salatu zituzten.

Lege berri honek "Euskal Herria nazio bezala ez onartzeaz gain; gure hizkuntza, euskara, hirugarren maila batean jarriko dute, gaztelera eta ingeleraren atzetik".

Honetaz gain, Espainiar Konstituzioa ikasi beharra; ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten eskolak diru publikoaz babestea, eta gaztetatik enpresagintzara bideraturiko heziketa jasoa-raztea gaitsetzi zuten.

Gainera, gobernu zentralak "inposaturikoa" den Selektibitateaz gain, 11 urtetatik gaz-

teak azterketa estatalak egitera behartuko dituztela azpimarratu zuten Lasarte-Usurbil Institutuko Ikasle Abertzaleek, "geure etorkizuna gaitasunekin ez, baina noten bidez txikitatib erabakiz".

Unibertsitateetako erreforma ere izan zuten hizpide agerraldian. "EU2015 lehenik, eta ondoren, EU2020 Unibertsitateko erreformekin geure etorkizuna merkatu mundura are gehiago bideratuko dela, Europar Batasunean erabakiko delarik geure formakuntzaren etorkizuna. Bolognarekin hasi zenak jarraipena du, beraz, honekin".

### Ekintzak

Horregatik, "eraso guzti hauen aurrean, erantzun bat ematea ezinbestekoa dela ikusten dugu" eta martxoaren 27an ikasle grebarako deialdia egin zuten ikasle abertzaleen taldeak.

Baina hau ez da ikasleek LOMCE eta gainontzeko erreformak gaitzesteko emango duten erantzun bakarra izan-



Lasarte-Usurbil Institutuko Ikasle Abertzaleak taldeak asteartean Institutuko hainbat ikasleren babesa izan zuen agerraldian.

go hilabetearen zehar hainbat ekintza egingo dituztela aurreratu zuten.

Hauek ekintzak hurbiltzen doazen heinean azalduko dituzte. Baina ekintzetako bat ere azaldu zuten, "Pentsatuta dugun ekintzetako bat, ostegunero, Ostegun Beltzak deituko ditugu, LOMCEk ekarriko dituen ondorioengatik doluan gaudela adierazteko eta era berean, irakasleekiko elkartasuna erakusteko murrizketak direla medio".

Ikasleren batek ekimen baterako ideiarik badu, haiei jakin arazteko deia egin zuten. "Norbaitek honen

inguruan ekintzaren bat, gauzarik txikiena bada ere, buruan badu entzuteko prest gaude denok batera aurrera eramateko".

### Eragileekin lanean

Hau guztiaz gain, ekintzak aurrera eramateko herriko eragileekin lanean ari direla adierazi zuten prentsaurrekoan, "hilabetearen zehar eta greba egunetik aurrera ere, lanean jarraituko dugula jakinarazi nahi dizuegu. Horretarako, hainbat eragileekin lanean ari garela jakinarazten dizuegu, baita herri mailan ere".

Era honetara, eragileekin

elkarlanean herrian ere, arazo kaleratuko dutela aurreratu zuten.

### Guztion esku

Erreforma guzti hauei aurre egitea guztiei, ikasle, irakasle eta gurasoei dagokiela gogoratu dute "datorren ikasturte-tik aurrera etorriko den kolpeak ez baikaitu ikasleok bakarrik jipoitzen, eta horregatik, gazte, irakasle eta gurasoen babesa ezinbestekoa dela gogorarazi nahi dugu".

Hori dela eta, guztiei ekintzetan edo greban parte hartzeko gonbita egin zieten, "Zorroztu arkatzak eta altxa!" hitzen bitartez.

## Tribuaren berbak Lasarte-Orian

ETB1eko Tribuaren berbak saioak Iñaki Arruti udaleko euskara teknikaria elkarriketatutako zuten astelehenean Landaberri BHIko patioan.

Kike Amunarriz saioak ikasleekin ere hainbat irudi grabatu zituen.

ETB1eko kamara Landaberri BHI-n izan zen astelehen arratsaldean.

Kike Amunarrizek zuzendu eta aurkezten duen Tribuaren Berbak saioarentzat grabaketa egitera etorri ziren astelehenean herrira.

Kike Amunarrizek berak Iñaki Arruti udaleko euskara teknikaria elkarriketatutako zuten lehenengo. Honek herrian euskararen erabilerak izan duen bilakaeraz hitz egin zuten.

### Eskolaren eragina

Tartean herriko eskoletan D ereduak euskararen erabileran izan duen eraginaz, zein aisialdiaren esparruan udalak



Kike Amunarriz Iñaki Arruti elkarriketatzen.

besteak beste, Ttakunekin landu dituen egitasmo ezberdinez. Kirola ekintzak eskalduntzearen garrantzia ere aipatu zuten Arrutik, egun umeei ekintza hauetan pasatzen duten denborari erreparratuta.

Iñaki Arrutiren elkarriketa laburraren ostean, ikasleekin

hainbat irudi grabatu nahi izan zituzten hizkuntzaren gurean izan duen bilakaera hori modu grafikoan adierazteko.

Ikasleak multzoka antolatuta, euskararen erabileran portzentaia irudikatu zituzten. Ikasleek pozik egin zuten saioa langileek eskatzen ziz-



Ikasleek argibideak adi entzun zituzten.

kietenak. Telebistan ateratzeko irrikitan azaltzen ziren denak.

Aipatu behar da, ikusmin handia sortu zuela telebistaren bisitak Landaberriko ikaslearen artean baina baita, irakaslearen artean ere.

Tribuaren Berbak saioa asteazkeno botatzen dute

ETB1en eta herrian egindakoa datorren asteazkenean, martxoak 5, ikusi ahal izango da 22:15ean.

Saio bakoitzean umorez zipriztinduta, euskarari buruzko informazio deigarria eta ezezaguna ekartzen du Amunarrizek. Berriki, Argia saria eskuratu du saioak.

## LABURRAK.



## Olmos judoka Euskadiko txapeldun

Igandean, Euskadiko junior txapeleketa ospatu zen Etxebarrin, Bizkaian. Honetan LOKE-ko hiru judoek parte hartu zuten Esteban Martinez, Mario Garrido eta Josu Olmos. Hirurek domina bana eskuratu zuten haien mailatan, bat urrezkoa, bestea zilarrezkoa eta azkena brontzezkoa. "Oso emaitza onak izan dira," aipatu digu Gorka Aristegi taldeko entrenatzaileak.

Josu Olmosek lortu zuen Euskadiko txapeldun txapela janztea. Hiru borroka irabazi ondoren iponez urrezko domina lortu zuen. "Aspaldiko partez, bere maila erakutsi zuen eta gozatu zuen judo egiten," azpimarratu du LOKEko arduradunak.

Esteban Martinezek, berriz, zilarrezko domina eskuratu zuen. Bi buruz buruko irabazi ondoren finala galdu zuen, "oso maila ona erakusten".

Azkenik, brontzea Mario Garridoren eskuetara joan zen. Bi borroka irabazi zituen iponez, baina final aurrekoan kale egin zuen. Azkenean bigarren aukeran lortu zuen domina.

LOKEko entrenatzaileak adierazi digunez, txapelketa honek irabazle eta txapeldun ordeek Zaragozan martxoaren 8an izango den Espainiako iparraldeko eremuko txapelketarako txartela eskuratu dute, beraz, bertan izango dira Josu Olmos eta Esteban Martinez.

## Ibarburu igerilaria Espainiako txapelketan

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Junior eta Infantilen Neguko Espainiako Txapelketan lehiatzen ari da Pontevedran.

Iñigok bakarkako lau probatan hartuko du parte: 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probetan eta 100 m. tximeleta proban.

Atzo 100 m. libre proban lehiatu zen eta D finalean izan zen. Bere marka hobetu zuen sailkapen proban.

Gaur 50 m. libre eta 100 m. tximeleta probei aurre egin beharko die igerilari gazteak.

## PILOTA.

## Partida erabakiorrak

Aurrera egiteko garaipena eskuratu behar dute Intzako bikoteek

**Asteburu garrantzitsua dute Intza-ko pilotariak. Udaberri txapelketako azken jardunaldia dute kadete, zein seniorrek eta jubentiek trinket txapelketako finalerdia jokatuko dute. Arteagak, berriz, Ogi-Berriko txapelketako partida du.**



Kadeteek partida zaila izango dute. Hernani garaitu behar dute finalaurrekoan egoteko.

## TXINTXARRI

Larunbatean, 16:00etatik aurrera, Intza-ko pilotarientzat Udaberri txapelketan aurrera egiteko erabakiorrak diren bi partida ikusteko aukera izango da Kirol guneko pilotalekuan, bai kadeteek baita seniorrek ere partidak irabazi behar dituzte txapelketako finalerdietan egoteko.

Kadeteek Hernaniren aurka jokatuko dute lehen partida.

Partida zaila izango da bi bikoteak sailkapeneko bigarren postua nahi dutelako. Izan ere, Joxe Felix Solano entrenatzaileak azaldu digunez, "partida irabaziz gero, Udaberri txapelketako finalerdietako txartela eskuratuko genuke."

Seniorren mailan, Behar Zana taldearen bikotea izango dute aurrez aurre Intzako lagunek.

Sailkapena zail dagoela onartu du Intza-ko arduradunak, beste partida baten menpe baitago, "partida irabazi beharko genuke, baina Murumendi eta Belokiren partidaren emaitza ere kontuan izan behar da".

Murumendik irabazi beharko luke Intza-ko bikoteak finalerdian egon ahal izateko.

## Finalerdia

Bestalde, Intza-ko jubentien mailako bikoteak Trinket txapelketako finalaurrekoan izango da Iruran.

Adur Etxezarreta eta Aritz Solanok Hernaniko bikotea-

ren aurka jokatuko beharko du norgehiagoka.

Lehen fasean 34-40 irabazi zuen Intza-ko bikoteak eta Solanok onartu duenez, "partida kontuan izanik, finalean egon gaitzke".

## Arteaga fin

Bestalde, Intza-ko jokalaria den Axier Arteaga txapelketaz txapelketa dabil.

Soraluzeko 4 t'erdiko txapelketan lehiatzen ari da eta asteartean finalerdietarako sailkatu zen Peña pilotariari 22 eta 14 irabazi ostean.

Era berean, II. Ogi-Berri Migel Soroa bikotekako txapelketan Erostarbe urretxuarrarekin batera Aguirre arabarra eta Ibarbando bizkaitararen aurka partida jokatuko du larunbatean Beotibar pilotalekuan.

## KIROL AGENDA.

## FUTBOLA

Larunbata 01

Zarkumendegi, Astigarraga, 11:00etan  
Astigarragako Mundarro-Ostadar  
Infantil txikia, partaidetza, txapelketa fasea

Michelin, 11:30ean

Ostadar-Oiartzun  
I. Kadetea, kopa

Michelin, 13:30ean

Ostadar-Sto. Tomas Lizeoa  
I. Jubentia, igoera

Zubipe, Hernani, 16:30ean

Hernani-Ostadar  
Erregional Oheozko maila

Zubipe, Hernani, 18:30ean

Hernani-Ostadar  
Jubentien Oheozko maila

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 28

HERRIKO TXAPELKETA

19:45ean, Urdaneta-Viña del Mar

20:45ean, Balerdi-Arkupe

Larunbata 01

HERRIKO TXAPELKETA

09:15ean, Buenetxea-Trumoi

10:15ean, Izarra-Txindoki

11:15ean, El Punto-Ilargi

12:15ean, Indaux-Aritza

13:15ean, Arkupe-Viña del Mar

Kiroldegia, 15:00etan

ISU Leihoak-Bilkoin Legorreta  
Gipuzkoako Liga

## PILOTA

Larunbata 01

Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan

Intza-Hernani I  
Eskuz binaka, II. kadetea. Udaberri txapelketa.

Kirol guneko pilotalekua, 16:00etan

Intza-Behar Zana  
Eskuz binaka, I. seniarra. Udaberri txapelketa.

Irura trinketa, 16:00etan

Intza-Hernani

Eskuz binaka, jubentia. Trinket txapelketa.

Finalerdia.

Beotibar, Tolosa, 17:00etan

Arteaga eta Erostarbe-Aguirre eta

Ibarbando

Eskuz binaka. II. Ogi-Berri Migel Soroa

Oroimezkoa

## ATLETISMOA

Larunbata 01

Anoetako Belodromoa, Donostia, 10:00etan  
eta 16:00etan

LOKEko atletiek kadete, jubentien eta junior mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 02

Aia, 11:30ean

Herriko hainbat atletiek Aiako mendi lasterketan parte hartuko dute.



## IGERIKETA

Osteguna 27-Igandea 02

Pontevedra

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu Junior eta Infantilen Neguko Espainiako txapelketan lehiatuko da.

## JUDO

Larunbata 01

Granadilla, Tenerife

LOKE-ko Yeray Mendibe judokak infantil mailako Espainiako kopako saioan parte hartuko du.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 01

Atsokabar parkea, 11:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako alebinek saioa dute.

Hondarribia, 16:30ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek Hondarribia Saria proban parte hartuko dute.

Igandea 02

Biyak Bat elkarte, 09:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Itsasondora egingo du denboraldi honetako lehen irteera.

Eibar, 09:45ean

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubentiek XXXVII. Udaberri Oroimezkoan lehiatuko dira.

Donostia, 10:00etan

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteak XXXVI. Ibaetako saria proban parte hartuko dute.

## ERRUGBIA

Larunbata 01

Asti, Zarautz, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai A-Ordizia  
Eskolarteko infantila

Asti, Zarautz, 11:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Ordizia  
16 urte azpikoak

Asti, Zarautz, 12:00etan

Beltzak Ostadar Jalai B-Aletico San Sebastian  
Eskolarteko infantila

Asti, Zarautz, 16:00etan

Beltzak Ostadar Gure Etxea- Atletico San Sebastian  
Euskal Liga, kadeteak

## BOLA-JOKOA

Igandea 02

AItza, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bola joko taldeak Lehendakari txapelketako lehen saioa du.

## Agenda

Ostirala 28, 22:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



### Ezezaguna

Okendo Zinema taldearen denboraldi berriko saioa, "Stockholm" filma ikusi ahal da. Diskoteka batean neska eta mutil bat ezagutzen dira. Mutilak maitemindu dela esaten dio neskari. Gaua elkarrekin igaro eta oheratzen dira. Zer gertatuko litzateke esnatzean ondoan dagoen pertsona zirudiena ez bada? Sarrera, leihatilan, 4,70 euro; internet bidez, 4,24 euro.

starring Hepta punk-ek girotuko dute lehiaketa.

**BUENETXEA TABERNA**

**Larunbata 1, 00:00etan**

Inauterietako jaia Oliver DMX eta Xabi Pitchin Dj-en eskutik.

### Ikastaroa

**ELEBELTZ TOPAGUNEA**

**Otsaileko ostiraletan arratsalde**

Gitarrako ikastaroko azken saioa eskainiko du Julen Basterrak.

### Emakumearen eguna

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 7, 19:30etan**

Lan eta Lan taldearen "Cinco mujeres con el mismo vestido" antzerki amateurrez gozatzeko aukera izango da. Emakumearen Nazioarteko egunaren barruko ekimena. Doan. Gaztelaniaz.

**Larunbata 8, 20:00etan**

Kukuka antzerki eta dantza eskolaren "Begiratu eta ikusi ez!" antzezlan. Emakumearen Nazioarteko egunaren barruko ekimena. Doan. Euskaraz.

**SEMBLANTE ANDALUZ**

**Ostirala 7, 19:30etan**

"Andaluces y Saharais" hitzaldia eskainiko du Yaiza Ruiz Sahara herriaren lagunak taldeko kideak. Osteen, afaria izango da.

### Buruntzaldea

#### Inauteriak

**Larunbata 1 eta Igandea 2**

Buruntzaldeko herrietan Inauteriak nagusi izango dira.

### Lasarte-Oria

#### Musika

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**

**Ostirala 28, 23:30ean**

"Stanley Road" taldeak bere LP berria "Spanish Art Today" aurkeztuko du. Sarrera, 6 euro. Osteen, dj saioa izango da.



kaleak hartuko dituzte. Musika izango da nagusi. Hainbat ekitaldi izango dira eguneari zehar, taldeen aurkezpena, desfilea eta gauean, dj-a.

**Igandea 2**

Euskal Inauteriak izango dira. Dantza, musika eta arratsaldean, hartzaren erretzea.

**AVENIDA TABERNA**

**Ostirala 28, 19:00etan**

"Bi and Bi" punk rock taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da.

**Larunbata 1, 19:00etan**

"Horzkada" taldearen eskutik kontzertua.

**INSAUSTI TABERNA**

**Larunbata 1 eta igandea 2**

"Black music"-az gozatzeko aukera izango da gaueko ordu txikiak arte.

**ZULO ARETOA**

**Larunbata 1, 23:30ean**

"Lluvia de estrellas" Inauterietako mozorro lehiaketa. Eszenatokira igo eta emanaldi onenari ere saria emango diote.

**SIGLO XX**

**Larunbata 1, 23:30ean**

Inauterietako III. mozorro lehiaketa ospatuko dute. Blami, EG/MR eta also

#### Inauteriak

**LASARTE-ORIA**

**Larunbata 1**

Inauterietako konpartsek herriko

## Herritarren txokoa

#### Buruntz-Azpiren ehiza txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak martxoaren 9an txakurrarekin egiten den ehiza xeheko lehiaketa antolatatu du eta osteen, bazkaria. Izena ematea elkartean egin behar da martxoaren 6a baino lehen. Ordainketa inskripzioarekin batera egingo da.

#### Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiralero Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

#### Megaba elkarte kide berrien bila

Lasarte-Oriako Megaba elkarteak jende gehiago behar du bere jarduna aurrera eramateko. Horregatik, herritarrak animatzen dituzte honetan parte hartzea.

Horretarako [www.megaba.es](http://www.megaba.es) weban formulario bat bete edota 649 513102 telefonora deitu behar da. Urtean 10 euroko kuota ordaintzen dute.

#### Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa. Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteak lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gустuko dutenentzat atek zabalik ditzutela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko [uztarolasarteoria@hotmail.com](mailto:uztarolasarteoria@hotmail.com) helbidean.

## Hemeroteka

### Duela 1000 ale

1996 urteko martxoan Lasarte-Oriako Udalak "Euskara merkataritzara" egitasmoa aurkeztu zuen eta TXINTXARRI aldizkariak honen berri eman zuen.

1995 urteko abenduan jarri zen martxan egitasmoa eta lehenengo fasean bi ekintza nagusi izan ziren burutu zituztenak.

Lehenengoa, merkataritzaren egoera soziolinguistikoa ezagutzea. Horretarako dendarien ezagutza-maila eta dendetan euskaren presentzia neurtu zen. Orduan, dendarien ezagupenak (%40,4) herritarrena gainditzen zuen (%32,4).

Ezagutza hain handia bazen, Udalak banatutako errotuluak izan ezik, gainontzeko idazkiak gaztelaniaz egiten ziren.


Bigarrena, egoera horren aurrean merkatariei eskaintza bat egin eta akordioak sinatu zituzten. Honen arabera, hizkuntza egoera hobetzeko konpromezua hartzen zuten merkatariek, beti ere, dendan eta langileen aukerak kontuan izanik.

Oso harrera ona izan zuen ekimenak. 409 establezimenduetatik 291-ek euskararen presentzia gehiatzearen alde agertu baitziren.

Honetaz gain, merkatariei zuzendutako euskara ikastaroak ere bazuden. Hauetan komertzio bakoitzean harremanak euskaraz nola egin ikasten zuten, baita komertzioarekin zer ikusia zituzten beste gai batzuk ere.

Era berean, erreportajearen herriko finantza-etxeekin ditugun harremanak euskaraz egiteko aukera zegoela gogoratzen zen.

Eta, azkenik, herritarrei haien erosketak euskaraz egiteko gonbita ere egiten zien Udalak.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858  
[txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)



Iaz Munduko kulturek hartu zuten herria larunbatean eta igandean, Euskal Inauteriek. Eguraldi euritsuari aurre egin behar izan zioten iaz herritarrek.

# Musika protagonista

Txupina bota eta konpartsek prestatutako jantzi eta dantzak erakutsiko dituzte

**Inauteri asteburuan festarako parada izango da herrian. Larunbatean herriko hamaika konpartsek hartuko dute Okendo. Txupina, aurkezpen ekitaldia, poteoa eta arratsaldeko desfileak ez du hutsik egingo. Igandean berriz, Euskal Inauterieren txanda izango da eta hainbat txantxo eta pertsonaia ikusi ahal izango dira gure kaleetan. Asteleheneko Txintxarri berezian jasoko ditugu Inauteri hauetako argazkiak eta egunean bertan Txintxarri.info-n.**

## TXINTXARRI

Inauteriak iritsi dira Lasarte-Oriara. Gaur arratsaldean herriko eskoletako umeez jai koloretsuak egingo dituzte Inauteri moztzora dotoreekin eta dagoeneko festak ez du etenik izango.

Esan behar da, ohi bezala herrian lehenak moztzora janzen Udal Musika eskolako ikasleak izan zirela.

Asteazkenean kontzertu bufoa eskaini zuten Manuel Lekuonan eta musika doinu politetz gain, irribarrea eragin zuten bere jantziekin. Guraso eta lagun asko elkartu zituzten gainera kultur etxean.

## Musika eta konpartsak

Musika da hain zuzen, aurten herria girotzeko aukeratu den

gaia. Eta horregatik, musikari eta musika talde andana ikusiko ditugu bihar ziur herriko kaleetatik.

Gazte Klubeko gaztetxoek adibidez, Hemendik At! euskal taldea ekarriko dute gogora, 90. hamarkadako talde famatua izan zen euren tekno doinuei esker gogoratzen? Kuadrillategin Lady Gaga, Bob Marley and the Wailers eta Grease dira gazteek hautatutako gaiak.

Hamaika konpartsa eratu dituzte aurten herritarrek, inoizko kopururik handiena udalak aurkezpenean azpimarratu nahi izan zuen bezala.

Guztiek euren aurkezpena egingo dute bihar Okendo plazan 12:00etan hasita. Aurkezpen honen baitan Nahaste

borraste taldeari dagokio festetako txupina botatzea. Konpartsek txupin jaurtiketa txandaka egingo dute iaz hasitako bideari jarraiki, gogoratu behar da Zabaleta Auzolanekoei egokitu zitzaizela lan hau iazko Inauterietan.

Behin festa hasita, txarngaren musikak girotuko ditu herriko kaleak. 13:00etan Sagardotegi ibiltaria izango da Okendo plazan, pintxo poteoa izango da Arkupe, Txanpa, Buenetxea, Andatza, Galiza eta Guria tabernetan Aterpeak sustatuta eta 14:00etan nahi duten konpartsa eta herritarrek bazkaria egin ahal izango dute Okendo plazan.

Eguraldi txarra balitz karparen barruan. Bazkariaren kasuan, bakoitzak berea eraman beharko du.

15:45ean Gazte Klubak "Bingoa" egingo du Okendon.

## Desfilea

Konpartsak elkartzeko hitzordua 16:30ean izango da Okendon eta Zabaletako eskutik txokolatada izango da giroa gozotzeko.

17:00etan konpartsen desfileari ekingo zaio herriko kaleetan barrena Okendo plazan hasi, kale Nagusia, Ola kalea, Zumaburu kalea; Zumaburu eliza paretik kale Nagusia; Tajamar errotonda, Pablo Mutiozabal eta Geltoki kalea. Okendo plazan amaiera emango zaio desfileari 19:00ak inguruan.

Iaz gertatu bezala, eguraldi txarra egingo balu, konpartsek erabakiko dute desfilea egin edo ez.

Dinbi Bandakoek kaleak alaituko dituzte ondoren. 23:00etatik aurrera, Okendoko karpian Abibaren diskofestarekin herritarrek parrandarako aukera izango dute.

## Txantxoan igandea

Euskal Inauterieren txanda izango da igandean. Bigarren urtez Euskal Inauterieren konpartsen lekuko hartu ostean, Ttakunek antolatuko ditu.

12:00etan Okendon elkar-tu eta Patxi Larrañaga harategiko produktuekin hamaiketako ederra egingo da.

12:45ean, erdigunean dantzatuko dira euskal inauterietako dantzak: Okendo, kale Nagusia, Zumaburu erro-tondan buelta eman eta Kale Nagusitik Tajamar errotonda-raino, Hipodromo etorbide-tik jaitsi eta Okendo plazan ibilbidea bukatzeko.

17:30ean berriz Okendotik dantzan abiatuko da kalejira herrian barrena goizeko ibilbidea burutzeko.

Kalejira irekia dela adierazi dute antolatzaileek eta herritarrek honetan parte hartzera deitzen dituzte. Okendo plazan bukatuko da dantaldia eta bertan Hartzara erreko da festari amaiera emateko. Eguraldi oso txarra egingo balu Okendoko karpian egingo da dantza iaz bezala.

Ttakunek igandean ere herritarrek moztzora deitzen ditu herrian larunbat zein igandean Inauteri giroa nagusi izan dadin.

Udalaren aldetik, herritarrei eskatu zaie etxe-ko balkoiak oihala koloretsuekin apaintzeko ere.

Aurreikusita dagoen eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta has dadila moztzora festa!

**EUROMIKEL'S, S.L.**



N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.  
20150 Villabona  
Tel.: 943 360850  
943 365401  
boxes@euromikels.com  
[www.boxeseuromikels.com](http://www.boxeseuromikels.com)

**Hazlo tú mismo**

**Auto Mekanika BOXES**

OFERTA!  
ESKAINITZA!

943 360850

**Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI**  
**ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen,**  
**zergatik hainbeste ordaindu ?**  
**Hiru aukera dituzu :**  
**zuk egiten duzu**  
**zuk gurekin ikasiz**  
**guk egiten dugu**

**DEITU ETA ESKATU PREZIOAK**  
**KONPROMEZURIK GABE**